

UDAL ERAIKINETAN ETA INSTALAZIOETAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA LORTZEKO NEURRIAK EZARTZEKO BAZTANGO UDALAK MANTENTZE ELEKTRIKOAN TEKNIKARI ESPEZIALISTA KONTRATATUKO DU (5 hilabete eta 25 eguneko lan kontratua. C mailakoa), AUKERAKETA PROZESUA HONAKO HAU IZANGO DELARIK:

BETEBEHARREKOAK:

- 2. mailako/ Goi mailako Lanbide Heziketa elektrizitatean.
- B1 mailako gida baimena.
- Adinez nagusia izatea.
- Euskara ezagutza (C1/EGA).
- NEZ-an lan eskatzaile gisa egotea (bakarrik onartuko dira Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eginiko aurretiko hautaketan agertzen diren hautagaiak).
- Kontratu beharreko pertsonak kolektibo hauen artetik hautatuko dira (233/2012 EBAZPENA, otsailaren 23koa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeke toki entitateendako diru-laguntzak arautzen dituen eta 2260/2012 EBAZPENA, irailaren 25ekoa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen otsailaren 23ko 233/2012 Ebazpena aldatzen duena):
 - 50 urtetik gorakoak.
 - 30 urtetik beherakoak.
 - Desgaitasunen bat duten pertsonak, gutxienez %33ko desgaitasuna dutela aitortzen duen ziurtagiri baten bidez egiaztatua.
 - Luzaroko langabeak izan, hau da, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko agentzietan langabe gisa izena emana dutenak gutxienez hamabi hilabetez, kontratazioaren aurreko hemezortzi hilabetean.



KURRIKULUMAREN BAREMAZIOA (GEHIENEZ ERE 20 Puntu)

1.- FORMAKUNTZA (Gehienez ere 6 Puntu):

- Lanpostuarekin lotutako 50 ordu baino gehiagoko ikastaro bakoitzeko puntu bat
- Elektrizitate arloko instalatzaile agiriagatik: oinarrizkoa puntu bat eta espezialista 2 puntu.

2.- LAN ESPERIENTZIA (Gehienez ere 14 Puntu):

- Administrazio publikoetan mantentze elektrikoan lanaldi osoan aritzeagatik, urte bakoitzeko: 3 puntu (gehienez ere 8 puntu).
- Entitate pribatu batean mantentze elektrikoan lanaldi osoan aritzeagatik, urte bakoitzeko: 2 puntu (gehienez ere 6 puntu).
- Egiaztatutako esperientzia baloratzean, urte edo lanaldi osoa egiten ez duen aldiari proportzioan dagokiona emanen zaio.

3.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Deialdian parte hartzeko eskabideak Baztango Udaleko erregistroan aurkeztuko dira. Izangaiek kurrikuluma, N.A.N.ren fotokopia eta eskatutako tituluen egiaztagiria konpultsatuta aurkeztuko dituzte eskabidearekin batera, bai eta lehiaketan baliarazi nahi dituzten merezimendu guztienak ere. **Epea: 2014ko apirilaren 23a.**
- Lan esperientzia egiaztatzeke bizi laboralaren fotokopia edota enpresa ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.
- **EUSKARA:** titulua edo baliokidea aurkezten ez duten hautagaiak maila zehazteko azterketa bidez kreditatu beharko dute. **Euskara proba apirilaren 29an egingen da goizeko 9:00etan.**

EZAGUTZA TEKNIKOA EGIAZTATZEKO PROBA (Gehinez ere. 80 Puntu)

- Non: Baztango Udala
- Eguna: 2014/04/30

- Ordua: 9.00 horas.
- Arduraduna: Baztango Udaleko mantentze arloko langileak.
- Edukia:
 - Elektrizitate arloari buruzko test moduko galderak (gehienez ere 30 puntu; guttienez 15 puntu eskatuko dira).
 - Proba praktikoa (gehienez ere 50 puntu; guttienez 25 puntu eskatuko dira).

***Aldaketarik balego aurretik abisatuko genuke.**

EPAIMAHAIA:

Honako hauek izanen dira epaimahaikide:

-Mahaiburua: Baztango Udaleko lehen alkateordea.
Ordezkoa: Baztango Udaleko bigarren alkateordea.

-Mahaikidea: Baztango Udaleko zinegotzia.
Ordezkoa: Baztango Udaleko zinegotzia.

-Mahaikidea: Baztango Udaleko langileen ordezkari organoak izendatu beharreko kidea, maila berekoa edo, bertzenaz, goragokoa.
Ordezkoa: Baztango Udaleko langileen ordezkari organoak izendatu beharreko kidea, maila berekoa edo, bertzenaz, goragokoa.

-Mahaikidea: Baztan Udaleko mantenu taldeko langile bat.
Ordezkoa: Baztan Udaleko mantenu taldeko langile bat.

Idazkaria: Baztango Udalekoa edo legez haren ordezkaria dena.
Ordezkoa: Idazkariak erabakitzen duena.

Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da.

INFORMAZIO GEHIAGO:

Izaskun Abril. Tel. 606408613. baztan@cederna.es

